

COVID-19aren 68 kasu berri atzeman dira Nafarroan, 1.907 proba egin ondoren

NUPEko kiroldetgia eta Maristen Santa Maria la Real ikastetxea, Iruñean eta Iruñerrian populazioaren txertaketarako zentro egonkorak

Ostirala, 2021ko Martxoaren 12a

Atzo, Nafarroan, COVID-19aren 68 kasu positibo atzeman ziren, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak (ISPLN) emandako datuen arabera. Osasun-sistema publikoan 1.907 proba egin ziren (1.000 PCR proba eta 907 antigeno test). Positibotasun-tasa %3,5ekoa izan zen.

(Albiste honi buruz gehiago jakin nahi baduzu, mesedez kontsulta ezazu gaztelaniazko bertsioa. Goiko nabigazio barra gorrian alda dezakezu hizkuntza).